



# HERRIA

## mitoak zopatan ere

Joxe AZURMENDI

Betikoan gaituk berriro, adiskidea. Ez diat nik esaten, abertzaletasuneko elementu irrazionalak eta mitologikoak kritikatzeko ez dagoenik. Internazionalismoarenak edo Estatu demokratikoarenak kritikatzeko dagoen bezalaxe. Esaten diat, esan, gutxienez bitxia dela, hainbeste intelektual zorrotz eta ausart hain zuzen beti ahularen eta zapalduenaren mitoen kritikan ikustea, denak batera eta tribuna guztietatik. Haundiaren mitoak ez dituk nonbait irrazionalak. Eta, Euskal Herriari eta euskal abertzaletasunari begira behintzat, "progresistak" eta deus progresista ez direnak hain ederki bat etortzea kritika modutan, Balparða eta Orejagandik sozialista zahar eta berrienganaino.

Are bitxiagoa, kritikako horien artean "abertzaleak" ere ikustea azkenaldian, elementu irrazional eta mitologiko gabeko abertzaletasunik (beraie-na, noski) munduan inon balego bezala. Tximua ere, eta edozein animalia, lotua zegok bere lurraldeari. Eta gizona lurrari itsatsita egotea, gizonaren kasuan "lurrari" dagokion adiera aberatsean (hizkuntza, etab.), lehenagokoa duk arrazoiketarako egiten hasia baino.

Eta ez zegok internazionalismorik ere mila elementu irrazional (prerrazional) eta mitologiko gabe. Ez duk zerotik hasi eta hutsaren gainean sortutako ekuazio matematiko bat. "Ideologia" ere baduk. Baduk sentimendua ere (solidaritatea, adibidez), eta arrazoimen garbia eta sentimenduak (zientzia eta fedea) berezi nahita gabiltzak hain zuzen, batzuei sentimenduak eta fedea, besteei arrazoizkotasuna eta zientzia aitortu nahi dizkiegun momentutik. Partiketa horren zilegitasuna bait duk nik ukatzen dudana. XVIII. edo XIX. mendetan baino askoz gutxiago zekiagu gaur fedea eta arrazoimena, zientzia eta mitoa, garbi garbi berezten.

Hori ez duk, halere, geure buruak irrazionalismora kondenatzea. Arrazoizkotasunaren erlatiboa onartzea duk: hori, aldiz, bai abertzaletasunari eta bai internazionalismoari onartu behar zaiek. Arrazoizkotasun erlatiboa. Absolutua, berriz, ez zeukagu zergatik inori aitortu.

Zergatik eskandalizatu behar dik inork hau esaten delako? Aitzitik, eskandalagarria eta galdera bat merezi duena, gure egunotan, beste hau duk: zeinen presio eta interes bortitzek eragiten dik, hainbeste jende, politiko, albistari, intelektual, koru ederrean, euskal abertzaletasunaren irrazionalkeriak gora-gorarik aldarrikatzen aritea etengabe eta, une berean, bestelako irrazionalkeriak edozein opzio politikotan ahaztea? Ideologiek nagusiarri obeditu ohi baziotek, kanpaina ideologikoei ere obeditzen ziotek norbait. Zeri orain? Esan ote ziteke zapalduen interesei obeditzen diela, hori baldin baduk egina daukagun opzioa?

Praxiaren mailan ambiguate horiek bazeudek, ez zeudek gutxiago internazionalismoaren eta unibertsalismoaren doktrina mailan.

Epiketetok irakatsi ziguk, ez dugula esan behar "erromatarra naiz", "atenastarra naiz". Gure egiazko aita Zeus duk, bizitza eman diguna munduan eta munduaren egilea: "Munduko hiritarra naiz", esan behar diagu.

Kristautasunak doktrina bera izango dik, hemen, kreazioak adina inportantzia, gizon (beraz, gure anaia) eta aldi berean Jainko zen Jeŝukristoren salbazioak izango badu ere. Estozismo bezala, kristautasuna internazionalista duk, unibertsalismo burgesa, haren jarraian internazionalismo marxista.

Egungo irakurleak, seguruena, apenas oso arrazionalizat joko dizkit Zeus, Iahwe, gizon eta Jainko den Jeŝukristoren odola eta giza anaitasun unibertsalaren oinarritzeko moduok. Mitoak direla, esango genikek. Eta

denbora modernuetan, jarraituko genikek, anaitasun unibertsala eta internazionalismoa oinarritzeko ez zeukagu Zeus beharrik: aski diagu gizon guztiak berdina direla jakitea.

Baina ba ote zekiagu hori, benetan jakin, arrazoipidez eta probaz? Gizon guztiok anaiak garela, eta ez elkarren otsoak, hori ere mito bat duk, oso demokratikoa, baina ez bere muga zehatzak definitzen eta ez berezko bere ontasuna probatzen dakigun "giza naturaren" kontzeptu baten arabera mitoak azken finean.

Horregatik, ni neu ez nauk batere harritzen, Mario Onandia batek, E. Ibarzabal batek, abertzaletasunaren irrazionalismo eta mitologia asko aurkitzen badituzte (gehienez ere biok nola kointziditzen duten, harrituko nauk, beren ikuspideotan). Ez aurkitzeak askoz gehiago harritu beharoko nindukek.

Uste diat, ordea, gure artean opzio politiko desberdinak baldin badaude, guztien funtsezko erlatibismoa onartuz hasi beharra arrazoizkotasun mailan hain zuzen. Opzio guztien arrazoizkotasun erlatiboa. Orduan, bakoitzak bere programaren, helburuen eta helpideen arrazoizkotasun erlatiboki hobea, erakusten saiatu behar lukeela. Erlatibismoaren barruan beti. Orain ikusten dena, ordea, batzuk arrazoizko eta besteak zeharo irrazional, mundua argiaren eta ilunbearen bi zatietan zatitzea, manikeismo hutsa duk eta elkarriketari alde aurretik uko egitea. Dualismoaren betidaniko eskema mitikoa, Rikardo Arregik, esate baterako, abertzaleoi askotan aurpegira bota ziguna. Kastigatzailetatik biktimatara pasa gaituk nonbait orain.

Zopatan ere mitoak eta elementu irrazionalak zeukagu ezinbestean. Horrekin bizi behar. Giza pentsamenduaren historia hori duk, hainbat gehiago pentsamendu politikoarena. Eta ez zegok ondo zozoak beleari ezer esatea ipurdiaren beltzaz. Ez duk batere demokratikoa, beste edozeini gutxienez geure buruari adina gizatasun ez aitortzea. Eta ez duk hori bakea egiteko bidea. ■